

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

9982 *Hutsen zuzenketa, honako lege honena: 5/2012 Legea, uztailaren 6koa, auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzkoa.*

Hutsegiteak ikusi ditugu auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legean. Lege hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2012ko uztailaren 7ko alean, 162. zenbakikoan, argitaratu zen, eta honen bidez hutsen zuzenketak egiten ditugu:

6. orrialdean, 8. artikuluan, hau dioen lekuan: «...14. artikuluan xedatutakoaren arabera...», beste hau esan behar du: «...13. artikuluan xedatutakoaren arabera...».

12. orrialdean, azken xedapenetako hirugarrenaren seigarren paragrafoan, hau dioen lekuan: «...idazketa hau izango du 206. artikulua 2. paragrafoaren 2. arauak:», beste hau esan behar du: «...idazketa hau izango du 206. artikulua 1. paragrafoaren 2. arauak:».